

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

548

EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 19koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2023ko ekitaldirako deialdia, Ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntza-programarena.

Urriaren 11ko 118/2022 Dekretuak Ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio- proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntzak arautzen ditu, ZTBP Euskadi 2030eko Zeharkako Trakzio Ekimenen esparruan.

Deialdi hau Lehendakaritzaren 2023rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Dekretu horren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, bidezkoa da 2023ko ekitaldirako laguntzen deialdi publikoa egitea. Deialdi hori Lehendakaritzako idazkari nagusiak egin behar du, ebazpen baten bidez.

Ondorioz, eta Lehendakaritzaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenekin bat etorritz,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Laguntzen xedea.

Ebazpen honen xedea da urriaren 11ko 118/2022 Dekretuan ezarritako laguntzen 2023ko deialdia egitea. Dekretu horren bidez, ikerketa eta garapenerako zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak diseinatzeko laguntzak arautzen dira, zahartze osasuntsuko, mugikortasun elektrikoko eta ekonomia zirkularreko zeharkako trakzio ekimenen esparruan.

2. artikulua.– Diru-zuzkidura.

Deialdiko laguntzak finantzatzeko 1.200.000 euro bideratuko dira, Lehendakaritzako Berrikuntza Funtsetik, eta kopuru hori zati berdinetan banatuko da zeharkako trakzio ekimenei dagozkien eta diruz lagunduko diren hiru lerroen artean:

- a) Zahartze Osasuntsua: 400.000 euro.
- b) Mugikortasun Elektrikoa: 400.000 euro.
- c) Ekonomia Zirkularra: 400.000 euro.

3. artikulua.– Ebaluazio-organoen osaera.

1.– Urriaren 11ko 118/2022 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, hiru ebaluazio-organo ezartzen dira, zahartze osasuntsuaren, mugikortasun elektrikoaren eta ekonomia zirkularren arloko zeharkako trakzio ekimen bakoitzerako bat.

2.– Hiru ebaluazio-organoetako burua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako komisionatua izango da, Cristina Uriarte Toledo.

3.– Ebaluazio-organoetako kideak dira:

a) Zahartze Osasuntsua: Osasun Sailburuordetzaren bi ordezkari: Maria Ángeles Ibarondo Unamunzaga eta Jose Antonio de la Rica Giménez; Bioef fundazioaren ordezkari bat, Lorea Mendozza Arteche; eta Lehendakartzaren ordezkari bat, José Carlos Peña Hernández, idazkari-lanak egingo dituenak.

b) Mugikortasun Elektrikoa: Industria Sailburuordetzaren ordezkari bat, Ana Belén Camacho Vera, eta Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzaren ordezkari bat, Alberto Fernández González; SPRI Taldearen ordezkari bat, Cristina Oyon Echeverria; EEEren ordezkari bat, Javier Marqués González; eta Lehendakartzaren ordezkari bat, José Carlos Peña Hernández, idazkari-lanak egingo dituenak.

c) Ekonomia Zirkularra: Teknologia, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Sailburuordetzaren ordezkari bat, Alberto Fernández González, eta Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzaren ordezkari bat, Javier Aguirre Orcajo; Spri Taldearen ordezkari gisa, Cristina Oyon Echeverria; Ihoberen ordezkari gisa, Ander Elgorriaga Kunze; eta Lehendakartzaren ordezkari gisa, José Carlos Peña Hernández, idazkari-lanak egingo dituenak.

4. artikulua.– Eskabidea eta epea.

1.– Eskabidea bitarteko elektronikoen bidez egin beharko da, urriaren 11ko 118/2022 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, jarraian adierazten den Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez:

<https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1214601>

2.– Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eta 2023ko apirilaren 21ean amaituko da.

5. artikulua.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Erakunde interesdunek prozedura honen izapide guztiak bitarteko elektronikoak erabiliz eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Eskaera egin ondorengo izapideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egingo dira (www.euskadi.eus), helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta>, baita eskaera onesten edo ezesten duen ebazpenaren jakinarazpena ere. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 43. artikuluan araututakoaren arabera egingo da jakinarazpena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sortuko ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Lehendakartzaren idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena

2023ko otsailaren 2a, osteguna

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 19a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.

1. ERANSKINA

| <u>ZAHARTZE OSASUNTUA – PROIEKTU MEMORIA</u> | |
|--|--|
| ZTBP Euskadi 2030aren zeharkako trakzio ekimenen esparruan ikerketa eta garapenerako lankidetzazko proiektuak diseinatzeko laguntza-programa | |
| Proposatutako proiektuaren titulua | |
| Proiektuaren deskribapena | |
| Proiektuak lortu beharreko emaitza nagusiak | |
| Proiektuaren gutxi gorabeherako neurria (<i>guztizko aurrekontua, eurotan</i>) | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| Zeharkako Trakzio ekimenaren erronkei eta helburuei laguntzea (Ikusi eranskina, erronka bakoitzerako helburu espezifikoetarako buruzko xehetasun gehiagorako) | <u>Erronka espezifikoa</u> | <u>Proiektuak bere erronkari eta bere helburu zehatzei egiten dien ekarpena (ikusi eranskina)</u> |
|---|--|---|
| | 1. Zahartzea nola gertatzen den ulertzea, hari lotutako gaixotasunak prebenitzeko, atzeratzeko eta tratatzeko | |
| | 2. Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa hobetzea, adinekoen osasun- eta zaintza-premiak ulertuta | |
| | 3. Adinekoen beharretan oinarritutako eta osasuna prebenitzera eta sustatzera bideratutako ingurune komunitarioa, soziala eta kulturala sustatzea | |
| | 4. Adinekoen gizarteratzea eta parte-hartze soziala sustatzea, bai eta bizi-ohitura osasuntsuak ezartzea ere | |
| | 5. Zahartzeari lotutako aukerak aprobetxatuko dituen ekonomia bultzatzea (Silver Economy) | |
| | 6. Zeharkako erronka: genero-ikuspegia txertatzea aurreko erronka espezifiko guztietan, zahartze osasuntsuak eragin handiagoa duelako eta arrazoi desberdinak dituelako emakumeengan | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| | | |
|---|--|--|
| Proiektuan sartutako I+G+b jarduerak | Funtsezko ikerketa (oinarrizko ikerketa) | |
| | Ikerketa industriala (ikerketa aplikatua) | |
| | Garapen esperimentala (garapen teknologikoa) | |
| Proiektuak izan dezakeen eragin sozioekonomikoa eta emaitzen transferentzia (Zeharkako trakzio ekimenaren erronkei eta helburuei egindako ekarpenetik harago) | | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| Proiektuan partehartzen duten erakundeen partzuergoa (entitate eskatzaileaz barne) | <u>Entitatearen izena</u> | <u>Entitate mota (Dekretu arautzailearen 4.1 artikulua)</u> | <u>IFK(k)</u> | | |
|--|--|--|-----------------------------|--|--|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea | | | | | |
| Laguntzaren gehieneko intentsitatea handitzeko baldintzak | Proiektuak enpresa baten eta ikerketarako eta ezagutza zabaltzeko erakunde baten edo batzuen arteko lankidetzaren eraginkorra ekartzea, betiere erakunde horiek, gutxienez, diruz lagundu daitezkeen kostuen %10 beren gain hartzen badute eta beren ikerketaren emaitzak argitaratzeko eskubidea badute | <input type="checkbox"/> Bai | <input type="checkbox"/> Ez | | |
| | Proiektuaren emaitzak zabalkunde zabala izatea hitzaldien, argitalpenen, sarbide libreko oinarrien edo doako edo iturri irekiko programa informatikoen bide | <input type="checkbox"/> Bai | <input type="checkbox"/> Ez | | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| | | | | | |
|---|----------------------------------|--------------------------------------|-----------------------------|-------------------------------------|--------------------|
| Erakunde eskatzaileak proiektua DISEINATZEKO aurreikusitako eta diruz lagundu ahal izango diren gastuen banaketa (eurotan) | <u>Jarduera mota</u> | <u>Langileen zuzeneko kostua (€)</u> | <u>Zeharkako kostua (€)</u> | <u>Azpiktratazioaren Kostua (€)</u> | <u>Guztira (€)</u> |
| | Funtsezko ikerketa | | | | |
| | Ikerketa industrial | | | | |
| | Garapen esperimental | | | | |
| | <i>Kostua guztira</i> | | | | |
| Azpiktrataziorik badago, zehaztu azpiktratatutako erakundeak garatu beharreko jarduerak | <u>Azpiktratatutako jarduera</u> | <u>Garatzeko jarduera</u> | | | <u>Kostua (€)</u> |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

| | | | | |
|--|--|--------------|---------------------------|-------------------|
| Proiektua diseinatzeko eskatutako eta/edo emandako laguntzak | Laguntza eskatu zaion erakundea eta programa | Eskaera data | Eskatutako zenbatekoa (€) | Eskaeraren egoera |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

1-1. ERANSKINA

Zahartze Osasuntsuaren zeharkako trakzio ekimenaren helburuak eta erronkak

| <u>Erronka Orokorra</u> | <u>Helburu Orokorra</u> |
|--|---|
| Bizi-itxaropen osasuntsua handitzea, adineko pertsonen autonomia pertsonala eta ahalik eta bizi-kalitate onena ahalbidetzeko | Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena 5 urte luzatzea 2030erako, batez beste |
| Erronka Espezifikoak | 1. Zahartzea nola gertatzen den ulertzea, hari lotutako gaixotasunak prebenitzeko, atzeratzeko eta tratatzeko |
| | 2. Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa hobetzea, adinekoen osasun- eta zaintza-premiak ulertuta |
| | 3. Adinekoen beharretan oinarritutako eta osasuna prebenitzera eta sustatzera bideratutako ingurune komunitarioa, soziala eta kulturala sustatzea |
| | 4. Adinekoen gizarteratzea eta parte-hartze soziala sustatzea, bai eta bizi-ohitura osasungarriak ezartzea ere |
| | 5. Zahartzeari lotutako aukerak aprobetxatuko dituen ekonomia bultzatzea (Silver Economy) |
| | Zeharkako erronka: genero-ikuspegia txertatzea aurreko erronka espezifiko guztietan, zahartze osasuntsuak eragin handiagoa duelako eta arrazoi desberdinak dituelako emakumeengan |
| Erronka Espezifikoa | 1. Zahartzea nola gertatzen den ulertzea, hari lotutako gaixotasunak prebenitzeko, atzeratzeko eta tratatzeko |
| Helburu Espezifikoak | Zahartzearen etiopatologiari eta horri lotutako gaixotasunei buruzko ezagutza zientifiko berria sortzea. Zahartzearen historia naturala |
| | Zahartzearekin lotutako diagnostiko-sistema berriak eta horiei lotutako gaixotasunak garatzea |
| | Medikuntza pertsonalizatua zahartzearen esparruan aplikatzea ahalbidetuko duten markatzaileak garatzea |
| | Elikagaiak eta beste produktu eta zerbitzu batzuk garatzea, adinekoek bizi-ohitura osasungarriak izan ditzaten |
| Erronka Espezifikoa | 2. Arreta sanitarioa eta soziosanitarioa hobetzea, adinekoen osasun- eta zaintza-premiak ulertuta |
| Helburu Espezifikoak | Arreta soziosanitarioko eredu integral berriei buruzko ikerketa, pertsonak ardatz hartuta eta komunitateko eta egoitzako zainketen continuumean alternatiba berriak barne hartuta |
| | Eremu soziosanitarioko profesionalen gaikuntza hobetzea eta profil profesional berriak garatzea |
| | Osasuna eta zaintza monitorizatzeko ekipoak eta gailuak garatzea, zaintzaileei arreta eskainita |
| | Gizarte- eta kultura-ekintzak ezartzea arreta soziosanitarioko eredu berrietan |

| | |
|------------------------|--|
| Erronka Espezifikoa | 3. Adinekoen beharretan oinarritutako eta osasuna prebenitzera eta sustatzera bideratutako ingurune komunitarioa, soziala eta kulturala sustatzea |
| Helburu Espezifikoa | Adinekoen autonomia erraztu eta bizi-kalitatea hobetuko duten hiriak eta auzoak diseinatzea, adinekoen ahalduntzea eta erantzunkidetasuna erraztuz |
| | Adinekoen beharretara bideratutako etxebizitzak diseinatzea, autonomia areagotzeko eta bakardadea prebenitzeko |
| | Ekipamendu eta irtenbide adimendunak eta domotizaziokoak diseinatzea hiri-ingurunerako eta etxebizitzetarako |
| | Kulturak zahartzean duen eraginari buruzko ikerketa |
| Erronka Espezifikoa | 4. Adinekoen gizarteratzea eta parte-hartze soziala sustatzea, bai eta bizi-ohitura osasuntsuak ezartzea ere |
| Helburu Espezifikoa | Jarduera fisikoa eta zahartze osasungarria bultzatuko duen elikadura sustatzea |
| | Adinekoen inklusioa eta partehartzea erraztuko duten teknologia eta tresna digitalak hartzea erraztea |
| | Ohitura osasuntsuak ezartzea eta osasuna zaintzeko erantzunkidetasuna bultzatzen duten aldaketa kulturaletan sakontzea |
| | Bizialdi osoko ikaskuntza sustatzea |
| Erronka Espezifikoa | 5. Zahartzeari lotutako aukerak aprobetxatuko dituen ekonomia bultzatzea (Silver Economy) |
| Helburu Espezifikoa | Ongizateari eta aisialdiari lotutako negozio-eredu iraunkor berriak garatzea |
| | Zahartzeari lotutako industria-sarearen ekintzailtza eta garapena aktibatzea |

2. ERANSKINA

| MUGIKORTASUN ELEKTRIKOA – PROIEKTUAREN MEMORIA | |
|--|--|
| ZTBP Euskadi 2030aren zeharkako trakzio-ekimeneren esparruan ikerketa eta garapenerako lankidetzazko proiektuak diseinatzeko laguntza-programa | |
| Proposatutako proiektuaren titulua | |
| Proiektuaren deskribapena | |
| Proiektuak lortu beharreko emaitza nagusiak | |

| | | |
|---|---|--|
| <p>Proiektuaren gutxi gorabeherako neurria (guztizko aurrekontua, eurotan)</p> | | |
| <p>Zeharkako Trakzio Ekimenaren erronkei eta helburuei laguntzea (Ikusi eranskina <i>erronka bakoitzerako helburu espezifiko</i>ei buruzko xehetasun gehiagorako)</p> | <p><u>Erronka espezifikoa</u></p> | <p><u>Proiektuak bere erronkari eta bere helburu zehatzei egiten dien ekarpena (ikusi eranskina)</u></p> |
| | <p>1. Garraioaren elektrifikaziotik eratorritako eta balio-kate globalari eragiten dioten produktu, prozesu eta negozio-ereduen aldaketa erradikalei aurre egitea Euskadin</p> | |
| | <p>2. I+G+b egitea, ibilgailu elektrikoarekin lotutako produktu, teknologia, material eta ekoizpen-prozesu berriak Euskadiko balio-katean integratzeko</p> | |
| | <p>3. Karga-intentsitate handiagoa, pisu eta kostu txikiagoa eta metal arraroen erreserbekiko mendekotasun txikiagoa eragiten duten bateriak biltegitratzeko teknologia berriak garatzea.</p> | |
| | <p>4. Hiri-mugikortasun adimenduneko ekosistemak garatzea, ibilgailu elektrikoak, birkarga-sistemak, banaketa-sareak, komunikazio-sistemak eta mugikortasuna eta zibersegurtasuna kudeatzeko zerbitzuak integratzeko.</p> | |
| | <p>5. Ekonomia zirkularraren eta ekoberrikuntzaren aplikazioa sustatzea hiri-mugikortasunean, lehengaien kontsumoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko</p> | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| | | |
|---|--|--|
| Proiektuan sartutako I+G+b jarduerak | Funtsezko ikerketa (oinarrizko ikerketa) | |
| | Ikerketa Industrialak (ikerketa aplikatua) | |
| | Garapen esperimentala (garapen teknologikoa) | |
| Proiektuak izan dezakeen eragin sozioekonomikoa eta emaitzen transferentzia (Zeharkako trakzio ekimenaren erronkei eta helburuei egindako ekarpenetik harago) | | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| Proiektuan partehartzen duten erakundeen partzuergoa (entitate eskatzaileaz barne) | <u>Entitatearen izena</u> | <u>Entitate mota (Dekretu arautzailearen 4.1 artikulua)</u> | <u>IFK(s)</u> | | |
|--|---|--|-----------------------------|--|--|
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| Proiektuan genero ikuspegia txertatzea | | | | | |
| Laguntzaren gehieneko intentsitatea handitzeko baldintzak | Proiektuak enpresa baten eta ikerketarako eta ezagutza zabaltzeko erakunde baten edo batzuen arteko lankidetzara eraginkorra ekartzea, betiere erakunde horiek, gutxienez, diruz lagundu daitezkeen kostuen %10 beren gain hartzen badute eta beren ikerketaren emaitzak argitaratzeko eskubidea badute | <input type="checkbox"/> Bai | <input type="checkbox"/> Ez | | |
| | Proiektuaren emaitzak zabalkunde zabala izatea hitzaldien, argitalpenen, sarbide libreko oinarrien edo doako edo iturri irekiko programa informatikoen bide | <input type="checkbox"/> Bai | <input type="checkbox"/> Ez | | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| | | | | | |
|---|---|--------------------------------------|----------------------------------|-------------------------------------|--------------------|
| Erakunde eskatzaileak proiektua DISEINATZEKO aurreikusitako eta diruz lagundu ahal izango diren gastuen banaketa (<i>eurotan</i>) | <u>Jarduera mota</u> | <u>Langileen zuzeneko kostua (€)</u> | <u>Zeharkako kostua (€)</u> | <u>Azpikontrazioaren Kostua (€)</u> | <u>Guztira (€)</u> |
| | Funtsezko ikerketa | | | | |
| | Ikerketa industrialak | | | | |
| | Garapen esperimentalak | | | | |
| | <i>Kostuak guztira</i> | | | | |
| Azpikontrazioerik badago, zehaztu azpikontrataturako erakundeak garatu beharreko jarduerak | <u>Jarduera mota</u> | <u>Langileen Kostua (€)</u> | | | <u>Kostua (€)</u> |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| Proiektua diseinatzeko eskatutako eta / edo emandako laguntzak | <u>Laguntza eskatu zaion erakundea eta programa</u> | <u>Eskaera data</u> | <u>Eskatutako zenbatekoa (€)</u> | <u>Eskaeraren egoera</u> | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

2-1. ERANSKINA

Mugikortasun elektrikoaren zeharkako trakzio ekimenaren erronkak eta helburuak

| Erronka Orokorra | Helburu Orokorra |
|--|--|
| Mugikortasun iraunkorreko eredu berri bat eta berotegi-efektuko gasen emisio txikiko garraioa sustatzea, ibilgailu elektrikoari lotutako balio-katea bultzatuz, gaitasun industrialetan eta zientifiko-teknologikoetan oinarrituta | Basque Green Dealen ildotik, 2030ean Euskadin berotegi-efektuko gasen emisioa % 45 murrizten laguntzea, Europak klimaren neutraltasuna lortzeko duen erronkarekin bat etorritik, hemendik 2050era garraiotik datozen isuriak % 90 murriztuz |
| Erronka espezifikoak | 1. Garraioaren elektrifikaziotik eratorritako eta balio-kate globalari eragiten dioten produktu, prozesu eta negozio-ereduen aldaketa erradikalei aurre egitea Euskadin |
| | 2. I+G+b egitea, ibilgailu elektrikoarekin lotutako produktu, teknologia, material eta ekoizpen-prozesu berriak Euskadiko balio-katean integratzeko |
| | 3. Karga-intentsitate handiagoa, pisu eta kostu txikiagoa eta metal arraroen erreserbekiko mendekotasun txikiagoa eragiten duten bateriak biltegitratzeko teknologia berriak garatzea |
| | 4. Hiri-mugikortasun adimenduneko ekosistemak garatzea, ibilgailu elektrikoak, birkarga-sistemak, banaketa-sareak, komunikazio-sistemak eta mugikortasuna eta zibersegurtasuna kudeatzeko zerbitzuak integratzeko. |
| | 5. Ekonomia zirkularren eta ekoberrikuntzaren aplikazioa sustatzea hiri-mugikortasunean, lehengaien kontsumoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko |
| Erronka espezifikoak | 1. Garraioaren elektrifikaziotik eratorritako eta balio-kate globalari eragiten dioten produktu, prozesu eta negozio-ereduen aldaketa erradikalei aurre egitea Euskadin |
| Helburu Espezifikoak | Fabrikazioaren kontzeptua aldatzea, eredu bakar baterako erreferentzia kopuru handiagoa kudeatzeko gai izateko, ibilgailu elektrikoaren eredu bakoitzeko produktuen gehikuntzazatik, bulkada-sistemen barietateazatik eta lotutako produktu berriengatik |
| | Portfolioan balio-katerako erabat berria den garapen- eta fabrikazio-prozesu bat adierazten duten ibilgailu elektrikoari lotutako produktuak sartzeko beharra |
| Erronka espezifikoak | 2. I+G+b egitea, ibilgailu elektrikoarekin lotutako produktu, teknologia, material eta ekoizpen-prozesu berriak Euskadiko balio-katean integratzeko |
| Helburu Espezifikoak | Gaitasun zientifiko-teknologikoak eta industrialak ibilgailu elektrikoaren erronkaren inguruan lerrotzea |
| | I+G+b eta erakustaldi proiektuak babestea, fabrikazio-prozesu berriak eta karbonoaren aztarna murrizten laguntzen duten material berri arinagoak eta seguruagoak diseinatzeko eta garatzeko |

| | |
|---------------------------|--|
| Erronka espezifikoa | 3. Karga-intentsitate handiagoa, pisu eta kostu txikiagoa eta metal arraroen erreserbekiko mendekotasun txikiagoa eragiten duten bateriak biltegitratzeko teknologia berriak garatzea |
| Helburu Espezifikokoak | Beyond Li Teknologia berriak garatzea |
| | Egoera solidoko gelaxka-baterien ekoizpena bultzatzea |
| | Hidrogeno pilen garapen teknologikoa |
| | Bateria elektrokimikoen bizi-itxaropena handitzea |
| | Bateriei bigarren bizitza bat ematea (Second life) |
| Erronka espezifikoa | 4. Hiri-mugikortasun adimenduneko ekosistemak garatzea, ibilgailu elektrikoa, birkarga-sistemak, banaketa-sareak, komunikazio-sistemak eta mugikortasuna eta zibersegurtasuna kudeatzeko zerbitzuak integratzeko |
| Helburu Espezifikokoak | Ibilgailu elektrikoa kargatzeko sistemak, energia berriztagarriak eta biltegitratzea integratzen dituzten erakustaldi-ekimenak bultzatzea, euskal enpresen gaitasunak erakusteko |
| | Ibilgailu elektrikoa azkar eta oso azkar kargatzeari eta horiek sare elektrikoan integratzeko kontrol eta kudeaketari lotutako ekipamendu eta azpiegiturretan eskaintza berritzaile eta bereizgarri bat garatzen laguntzea |
| | Hiri barruko eta hiriarteko garraio publikoaren sarearen azpiegitura hobetuko duten sistemak eta ekipoa garatu eta ezartzea, sistema multimodala sustatuz eta garraio partekatua barne hartuz |
| | Sistemari eta ibilgailuaren eta sistema elektrikoaren arteko elkarreraginari aplikatutako zibersegurtasuna bultzatzea |
| | Mugikortasun elektrikoa kudeatzeko komunikazio- eta zerbitzu-sistema berriak garatzea, garraioarekin lotutako informazio-sistema digitalen irisgarritasuna herritar guzientzat hobetuz eta dagoen arau-esparrua egokituz |
| Helburu espezifikoa | 5. Ekonomia zirkularren eta ekoberrikuntzaren aplikazioa sustatzea hiri-mugikortasunean, lehengaien kontsumoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko |
| Helburu espezifikokoak | Ekonomia zirkularrean oinarritutako irtenbide berritzaileak garatzea garraio eta mugikortasunaren sektorean lehengaien kontsumoa murrizteko |
| | Ibilgailuak eta horien osagaiak txandakatzea eta birziklatzea erraztuko duten prozesu eta sistema berriak sustatzea |
| | Remanufacturingaren garrantzia sustatzea, plastikoak eta konpositeak gehiago erabiltzeagatik |
| | Ekoberrikuntzako printzipio eta teknologiak aplikatzea, fabrikazio-prozesuetan energia-eraginkortasuna hobetzeko |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

3. ERANSKINA

| <u>EKONOMIA ZIRKULARRA– PROIEKTU MEMORIA</u> | |
|--|--|
| ZTBP Euskadi 2030aren zeharkako trakzio ekimenen esparruan ikerketa eta garapenerako lankidetzak trakzio proiektuak diseinatzeko laguntza-programa | |
| Proposatutako proiektuaren titulua | |
| Proiektuaren deskribapena | |
| Proiektuak lortu beharreko emaitza nagusiak | |

| | | |
|---|--|--|
| <p>Proiektuaren gutxi gorabeherako neurria (<i>guztizko aurrekontua, eurotan</i>)</p> | | |
| <p>Zeharkako Trakzio ekimenaren erronkei eta helburuei laguntzea (<i>Ikusi eranskina, erronka bakoitzerako helburu espezifikoetarako buruzko xehetasun gehiagorako</i>)</p> | <p>Erronka espezifikoa</p> | <p>Proiektuak bere erronkari eta bere helburu zehatzei egiten dien ekarpena (<i>ikusi eranskina</i>)</p> |
| | <p>1. Energiaren eta lehengaien kontsumoa optimizatzea balio-katean, lotutako materialen, fabrikazio-prozesuen, parametroen, ekipoen, produktuen eta zerbitzu aurreratuen berrikuntzarekin.</p> | |
| | <p>2. Eragileen artean kontsumo zirkularraren eredia sustatzea eta negozio-eredu zirkularragoak bultzatzea.</p> | |
| | <p>3. Bioekonomia sustatzea funtsezko sektore ekonomikoak eraldatzeko, lurraldean dauden baliabide biologikoetan oinarritutako material, produktu eta negozio-eredu berrien belaunaldi berri batetik abiatuta.</p> | |
| | <p>4. Hondakinen sorrera minimizatuko duen ekoizpen-eredua aldatzeko trantsizioa bultzatzea, berrikuntza, baliabideen erabilera prozesuen eraginkortasunaren hobekuntza eta materialen, produktuen eta prozesuen ekodiseinua sustatuz.</p> | |
| | <p>5. Elikagaien xahuketa murriztea, hondakinen sorrera erdira murriztu arte.</p> | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| | | |
|---|---|--|
| Proiektuan sartutako I+G+b jarduerak. | Funtsezko ikerketa (oinarrizko ikerketa). | |
| | Ikerketa industrialia (ikerketa aplikatua). | |
| | Garapen esperimentala (garapen teknologikoa). | |
| Proiektuak izan dezakeen eragin sozioekonomikoa eta emaitzen transferentzia (Zeharkako trakzio ekimenaren erronkei eta helburuei egindako ekarpenetik harago) | | |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| Proiektuan partehartzen duten erakundeen partzuergoa (entitate eskatzaileaz barne) | <u>Entitatearen izena</u> | <u>Entitate mota (Dekretu arautzailearen 4.1 artikulua)</u> | <u>IFK(s)</u> | |
|--|---|--|------------------------------|-----------------------------|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| Proiektuan genero-ikuspegia txertatzea | | | | |
| Laguntzaren gehieneko intentsitatea handitzeko baldintzak | Proiektuak enpresa baten eta ikerketarako eta ezagutza zabaltzeko erakunde baten edo batzuen arteko lankidetzara eraginkorra ekartzea, betiere erakunde horiek, gutxienez, diruz lagundu daitezkeen kostuen %10 beren gain hartzen badute eta beren ikerketaren emaitzak argitaratzeko eskubidea badute | | <input type="checkbox"/> Bai | <input type="checkbox"/> Ez |
| | Proiektuaren emaitzak zabalkunde zabala izatea hitzaldien, argitalpenen, sarbide libreko oinarrien edo doako edo iturri irekiko programa informatikoen bide | | <input type="checkbox"/> Bai | <input type="checkbox"/> Ez |

2023ko otsailaren 2a, osteguna

| | | | | | |
|---|---|--------------------------------------|----------------------------------|------------------------------------|--------------------|
| Erakunde eskatzaileak proiektua DISEINATZEKO aurreikusitako eta diruz lagundu ahal izango diren gastuen banaketa (eurotan). | <u>Jarduera mota</u> | <u>Langileen zuzeneko kostua (€)</u> | <u>Zeharkako kostua (€)</u> | <u>Azpiktratazioaren kostua(€)</u> | <u>Guztira (€)</u> |
| | Funtsezko ikerketa | | | | |
| | Ikerketa industrial | | | | |
| | Garapen esperimental | | | | |
| | Kostua guztira | | | | |
| Azpiktrataziorik badago, zehaztu azpiktratatutako erakundeak garatu beharreko jarduerak. | <u>Azpiktratatutako entitatea</u> | <u>Garatzeko jarduera</u> | | | <u>Kostua (€)</u> |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| Proiektua diseinatzeko eskatutako eta/edo emandako laguntzak | <u>Laguntza eskatu zaion erakundea eta programa</u> | <u>Eskaera data</u> | <u>Eskatutako zenbatekoa (€)</u> | <u>Eskaeraren egoera</u> | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |
| | | | | | |

3-1. ERANSKINA

Ekonomia zirkularraren zeharkako trakzio ekimenaren erronkak eta helburuak

| Erronka Orokorra | Helburu Orokorra |
|---|---|
| Euskadik baliabideen erabilera ekonomia eraginkorrago bateranzko trantsizioa bultzatzea, ekoizpen eta kontsumo eredu berri baterantz bideratutako berrikuntzaren bitartez | Produktibitate materiala %30 handitzea, material zirkularraren erabilera tasa %30 handitzea eta BPGd bakoitzeko hondakinen sorrera tasa %30 murriztea 2030erako |
| Erronka Espezifikoak | 1. Energiaren eta lehengaien kontsumoa optimizatzea balio-katean, lotutako materialen, fabrikazio-prozesuen, parametroen, ekipoen, produktuen eta zerbitzu aurreratuen berrikuntzarekin |
| | 2. Eragileen artean kontsumo zirkularraren eredua sustatzea eta negozio-eredu zirkularragoak bultzatzea |
| | 3. Bioekonomia sustatzea funtsezko sektore ekonomikoak eraldatzeko, lurraldean dauden baliabide biologikoetan oinarritutako material, produktu eta negozio-eredu berrien belaunaldi berri batetik abiatuta |
| | 4. Hondakinen sorrera minimizatuko duen ekoizpen-ereduaren aldaketarako trantsizioa bultzatzea, berrikuntza, baliabideen erabilera prozesuen eraginkortasuna hobetzea eta materialen, produktuen eta prozesuen ekodiseinua sustatuz |
| | 5. Elikagaien xahuketa murriztea, hondakinen sorrera erdira murriztu arte |
| Erronka espezifikoa | 1. Energiaren eta lehengaien kontsumoa optimizatzea balio-katean zehar, materialen, fabrikazio-prozesuen, parametroen, ekipoen, produktuen eta lotutako zerbitzu aurreratuen berrikuntzarekin lotuta |
| Helburu Espezifikoak | I+G+b sustatzea material, prozesu, produktu eta zerbitzu aurreratu eta iraunkorretan |
| | Eraikitako parkearen energia-birgaitze jasangarria sustatzea, material birziklatuak erabiliz eta hondakin propioak kudeatuz |
| | Euskal ekonomia zirkularrago bateranzko trantsizioa bultzatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta profil profesionalak garatzea |
| | Produktuen balio-bizitza luzatzea eta lehengaien kontsumoa eta hondakinen sorrera murriztea |
| | Bigarren mailako lehengaien erabilera handitzea |
| Erronka espezifikoa | 2. Eragileen artean kontsumo zirkularraren eredua sustatzea eta negozio-eredu zirkularragoak bultzatzea |
| Helburu Espezifikoak | Ekonomia zirkularrean oinarritutako negozio-eredu berriak garatzea: energia-eraginkortasuna, baliabideen eta hondakinen berreskurapena eta balorizazioa |
| | Dauden balio-kateak birmoldatzea, prozesuak bioekonomia zirkularrerantz eraldatzea erraztuz |
| | Materialetan hain intentsiboak ez diren negozio-eredu berriak garatzea produktu-zerbitzu eskaintza integratuen bidez, IKTak txertatuz eta lankidetzak-ekonomiako eredu berriak sustatuz |
| | Produktuen eta prozesuen diseinu birtuala eta simulazio konputazionala, industriako hondakin produktuak berreskuratu eta balioztatzeko eta energia eraginkortasuna hobetzeko |
| | Hiri-prozesuetan naturan oinarritutako soluzioen (SBN) erabilera handitzea, ekonomia zirkularra sustatzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko. Hiri-espazioen diseinuan eragina duen arau-esparrua egokitzea |

| | |
|----------------------|---|
| | Balio erantsi handiagoko produktu eta irtenbide berrien garapena sustatzea lehentasunezko eremuetan (packaging eta biomaterialak...) |
| Erronka espezifikoa | 3. Bioekonomia sustatzea funtsezko sektore ekonomikoak eraldatzeko, lurraldean dauden baliabide biologikoetan oinarritutako material, produktu eta negozio-eredu berrien belaunaldi berri batetik abiatuta |
| Helburu Espezifikoak | Basogintzako bioekonomia bultzatzea, ekoizpen-prozesuetan material berriztagarrien sartzea azpimarratuz, gaur egun erabiltzen diren material berriztaezinen ordeztuz |
| | Zuraren balio-katea sustatzea, produktibitatean hobekuntzak sustatuz, zura eraldatuz eta kontserbatuz, eta zura energia- eta biomasa-baliabide gisa dituen aukerak indartuz |
| | Ikerteta, berrikuntza eta ezagutza aurreratuaren sorrera bultzatzea, gaitasun zientifiko-teknologikoak indartzeko bioekonomiaren eremuan |
| Erronka espezifikoa | 4. Hondakinen sorrera minimizatuko duen ekoizpen-ereduaren aldaketarako trantsizioa bultzatzea, berrikuntza, baliabideen erabilera prozesuen eraginkortasuna hobetzea eta materialen, produktuen eta prozesuen ekodiseinua sustatuz |
| Helburu Espezifikoak | Produkzioan baliabide material gutxiago behar dituzten produktu berriak garatzea, produktuen eta eraikinen ekodiseinuaren printzipioak eta teknikak aplikatuz |
| | Negozio-eredu berriak eta aldaketak sustatzea hondakinen berrerabiltze-, birziklatze- eta berreskuratze-tasa handituko duten ekoizpen-prozesuetan |
| | Plastikoak birziklatzeko metodo eta prozesu berriak garatzea edo daudenak hobetzea, kostuak murrizteko eta emaitzak hobetzeko |
| | Produktu eta ekoizpen-sistema moldagarrien balio-bizitza zabaltzea |
| | Eraikuntzako egitura eta elementuetan hainbat industria-prozesutan sortutako azpiproduktuen berrerabilera bultzatzea, eraikuntzari eta obra zibilari aplikatuta |
| Erronka espezifikoa | 5. Elikagaien xahuketa murriztea, hondakinen sorrera erdira murriztu arte |
| Helburu Espezifikoak | Nekazaritzako elikagaien balio-katearen ekoizpen-prozesuak berritzea, produktuen erabileraren eraginkortasuna hobetzeko eta sortutako hondakinak murrizteko |
| | Elikagai-soberakinak berrerabiltzeko prozesuak hobetzea, elikagaien segurtasuna bermatuz beti |
| | Hondakin organikoak birziklatzeko teknologia eta prozesu berriak garatzea, ekonomiara itzultzeko eta bigarren erabilera bat emateko, hala nola biogasa eta/edo konposta ekoiztea |